



KIROL-AISIALDIKO MAHAIA

2024ko apirilaren 17a

GAI-ZERREDA:

- ✓ Ongi etorria.
- ✓ Abian den proiektua:
 - Getxo Bono 2024
 - 2023 eta 2024ko kontrataziorako laguntzak
 - Getxo: helmuga turistikoa adimendunerantz aurrera
 - <Getxoz gozatzeko planak 2024> kanpaina
 - Flysch Bizkaia proiektua
 - DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua
 - Getxo Itsas Hub eta Getxo Sormen Hub
 - Surfaren Herrien Sarea
 - Beste batzuk
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa.
- ✓ Ideia eta proposamen berriak.

BERTARATUAK: (% 19)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoiak emanda	Arrazoirik eman gabe
Sektoreko ordezkaria eta Polaris Nautika Eskolako kudeatzailea	Héctor García	X		
2 Milia	David Benavente			X
Galea nautika	Javier Gutiérrez			X
Marmitako Sailing	Eduardo Arostegui		X	
Sailing & Wine	Natxo Taibo			X
Ballestrinque Nautika	Alejandro Bracho			X
Arriluze Nautika	Roberto Santos			X



As de Guía	Javier Peña			X
Sotavento Nautika Eskola	Alfonso Hernández			X
Jose Luis de Ugarte Bela Eskola	Eduardo Santamarina			X
Pakea Bela Eskola	Gonzalo Terceño			X
El Bote Tours	Juan Olabarria			X
Getxo Watersports Jet	Iñigo Martínez			X
Planeta Jets	Olga Zabala	X		
Getxoport	Jose Miguel Larrinaga	BAJA		
La Mar de Bien	Jose Muro			X
Acero Surf Eskola	Eneko Acero			X
La Salbaje Surf Eskola	César González	X		
Barrika Surf Kanp	Nagore Nicolas			X
La Kantera Skate Eskola	Borja			X
Arrecife	Jose Manuel Rodriguez			X
Dive Tarpoon	Julen Ibinaga			X
Loizaga Prest	Imanol Loizaga			X
Geotxiki	Aintzane Goffard	X		
Ekobideak	Imanol López		X	
Euskadi Trek	Marisa Lago			X
Fangaloka Style	Pablo Holguera	X		
Iparapente	Aritza Irurizaga			X
Parapente Bizkaia	Wiso			X
Deskonecta	Begoña Oca			X
Hegohaize Foil	Ibai Egurrola			X
Getxo Water Bikers	Nagore			X
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapeneko Arloa	Ane Osoro	X		
	Mirene Zabalgogezcoa	X		
	Rubén Justicia	X		

EDUKIAK:

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Mirene Zabalgogezcoak, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, bilerara gerturatutakoei ongietorria egin die. Jarraian, talde-eztabaida txiki bati ekin zaio udako denboraldia nolakoa izan den eta sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren azaltzeko. Ildo horretatik, bileran batutakoek honako hau adierazi dute:

2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Oro har, bertaratuek udarekin eta beroarekin lotutako urtaro-zerbitzuak eskaintzen dituzte. Beraz, eguraldiak baldintzatzen du denboraldia. Oro har, Aste Santua ondo joan dela eta ostatu-erreserbak nahiko hobetu direla diote.

3. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

a) Getxo Bono 2024

Mirene Zabalgogeazcoak (aurrerantzean M.Z.) kanpainari atxikitako establezimendu kopuruaren berri eman du: Lau, eta guztira 77 bonu trukatu dira.

Era berean, joan den urtearekin alderatuta egin diren aldaketak zerrendatu ditu:

- Kanpainak astebete iraun du, iaz baino askoz gehiago. Urrian bigarren deialdi bat dago, baldintza berberekin.
- Establezimendu bakoitzean trukatzeko bonuen gehieneko muga. 1000 €-ko hobaria establezimendu bakoitzeko.

[Getxo Bonori buruzko informazio gehiago.](#)

b) 2023 eta 2024ko kontrataziorako laguntzak

M.Z.-k, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, jakinarazi du 2023an emandako dirulaguntzen kopurua: hamasei laguntza eman ziren; horietatik sei (laguntzen herena baino gehiago) izan ziren merkataritzarako, lau ostalaritzarako eta sei zerbitzuen sektorerako. Gainera, erantsi du aurten deialdi berria atera dela, eta Ekonomia Sustapeneko Arloak deialdiaren berri emango duela behar denean.

M.Z.-k proposatu die aurreko deialdiko baldintzak eta betekizunak begiratzeko Getxoko Udaleko webgunean, ez baitira asko aldatzen deialdi berrietan.

[Informazio gehiago.](#)

c) Getxo: helmuga turistiko adimendunerantz aurrera

M.Z.-k, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, adierazi du Getxo Helmuga Turistiko Adimendunaren (HTA) zigiluarekin aintzatetsi dutela. Helmuga turistiko adimenduna (HTA) programak helmugen lehiakortasuna eta bertako biztanleen bizikaltatea hobetzea du helburu, gobernantzaren, berrikuntzaren, teknologiaren, jasangarritasunaren eta irisgarritasunaren bitartez. Ane Osorori, turismo-enpresa eta -jardueretako teknikariari, eman dio hitza.

Ane Osorok adierazi du 2023ko abenduan BasqueTourren diagnostikoa jaso zutela eta mahaian lanean ari direla BasqueTourrek proposatutako hobekuntzak ezartzeko. Ane Osorok adierazi du zalantzarik izanez gero helbide elektronikoko honetara idatz dezaketela: dti@getxo.eus.

d) <Getxoz gozatzeko planak 2024> kanpaina

M.Z.-k, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, jakinarazi du dagoeneko argitaratu direla planak: [Getxo - Zer egin - Zer egin](#). Gainera, jakinarazi du Getxo FITUREn egon zela plan horiekin eta Flyscharen proiektuarekin.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Katalogo berria erakutsi dute eta bertaratuen artean banatu. Katalogoa praktikoagoa dela esan dute, diseinua eta edukiak hobetu egin direla eta arinagoa dela.

Ane Osorok azaldu du “Getxoz gozatzeko planak 2024” katalogoa liburu zabalgarri formatuan dutela Ereagako Turismo Bulegoan, eta bertan era guztietako liburuxkak eska ditzaketela.

Informazio gehiago: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Programak - Getxoz gozatzeko planak 2024](#)

e) Flysch Bizkaia proiektua

Aditzera eman da Flyscharen webgunea martxan dagoela eta FITUREn aurkeztu zela: [Bizkaiko flyscha](#).

[Ane Osorok azaldu du webguneko jarduerak eguneratu direla eta 2024an kanpainak egingo direla funtsezko publikoarentzako: Madril eta Katalunia, eta Andaluzia eta Gaztela eta Leon. Enpresa parte-hartzaileentzako prestakuntza-saio bat ere lantzen ari dira.](#)

f) DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak

DEAPIE programari buruzko informazioa eman da: [Getxo - ZER IKUSI - deapie ibilbideak](#) eta 2024an ezarri beharreko ibilbide berrien berri eman da: vira Larrazabal, Juana Bizcarra, Ramiro Pinilla. DEAPIE ibilbideen liburuxka inprimatuak banatu zaizkie bertaratuei.

g) Getxo Itsas Hub eta Getxo Sormen Hub

Mirene Zabalgogezcoak jakinarazi du, beste batzuetan esan bezala, Getxon bi “hub” daudela (Sormen Hub eta Itsas Hub).

Itsas Hubean, guneak esleitzeko deialdiak irekita jarraitzen du.

[Getxo - Ekonomia Sustapena - Hub-ak eta lan espazioak - Hub-ak eta lanerako espazioak](#)

Berlaratuei animatu zaie beren jarduera gauzatzeko guneetan interesa izan dezaketan laguntzaileen artean ItsasHub ezagutzera ematera.

h) Surfaren Herrien Sarea

Ane Osorok adierazi du Getxo 2022an sartu zela “Surf Herrien Sarea” estatu-programaren barruan. Programa hori EBko Next Generation Funtsek diruz laguntzen dute. Proiektu hori Kantauri aldeko udalerriekin, Ferrol, Carballo eta Valdoviño (Galizia) mankomunitatearekin eta Castrillon (Asturias) eta Ribamontan herriekin batera egiten da. Gaineratu du helburuak hauek direla: surfari balioa ematea, eremu horietako jarduera turistikoak hobetzea eta jasangarritasuna sustatzea.

Era berean, argudiatu du proiektuaren marka-irudia ezartzen ari direla gaur egun. Datorren astean, marka-irudiaren aukeraketa parte-hartze publikoaren prozesuaren mende jarriko da. Asmoa da bisita surfarengatik egiten duen turistari beste kirol-, turismo- eta ostatu-jarduera batzuk eskaintzea.

i) Beste batzuk: Zerbitzu erregularrak dinamizatzeko laguntzak. Turismo-sektoreko berriarazo aholkularitza- eta prestakuntza-programak.

DINAMIZAZIO EKONOMIKORAKO LAGUNTZAK:

Ane Osorok barkamena eskatu du dinamizaziorako laguntzen kudeaketan izandako atzerapenagatik.

- 2023: 2023ko dirulaguntzen justifikazioak ebatziko dira apirilaren amaierarako/maiatzaren hasierarako.
- 2024: maiatzean, 2024ko deialdia irekiko da.

Ane Osorok gogorarazi du dirulaguntza horiek jasotzeko nahitaez “Getxoz gozatzeko planak” programari atxikita egon behar dela.

Pablo Holguerak (Fangaloka) galdetu du ea data zehatzeko jarduerak egon behar diren urte osoan. Ane Osorok esan dio komeni dela agenda askotariko datekin osatzea, betiere proposatutakoa betez. Halaber, azaldu du aurten inprimaki bat gehitu dela, dokumentazioa aurkezteko modua errazteko. Ane Osorok esan du edozein zalantza



izanez gero, berarekin harremanetan jar daitezkeela, agiriak behar bezala aurkezteko orientabideak eta aholkuak emateko.

TURISMO-SEKTOREKO AHOLKULARITZA- ETA PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK

M.Z.-k gogorarazi die sektoreak aholkularitza-zerbitzua duela eskura, lehiakortasuna hobetzeko aholkularitza jasotze aldera: Giza baliabideak, diruzaintza, fiskalitatea eta zerbitzuen hedapena eta komunikazioa.

4. Ideia eta proposamen berriak.

Oro har, sektorea oso kezkatuta dago kirol-portuaren esleipenaren etorkizunarekin, eta gaineratu dute egoera oso frustragarria dela. Inguruko merkataritza- eta turismo-jarduera abandonatu delako eta gainbehera doalako sentsazioa dutela jakinarazi dute. Olga Zabalak, Planeta Jets-eko arduradunak, argudiatu du ezin duela bere negozioaren aurreikuspen argirik egin, ez baitaki zer estrategia hartuko duten Portuko Agintaritzak eta Udalak, eta egoera are gehiago okertuko ote den beldur da, egoera argitu ezean. Pablo Holguerak (Fangaloka) esan du informazio-gune berri bat sortu dela eta maketa bat dagoela, baina ez dutela informazio baliotsurik ematen (erabakiak hartzea) negozioetarako.

César Gonzálezek (La Salvaje Surf Eskola) Barinatxeko La Salvaje hondartzarako sarbidearekin izan duen arazoa (eremua garbitzea) azaldu du. Ane Osorok adierazi dio arauketa Kostei eta Sopelako Udalarari dagokiela, ez Getxori. Césarrek esan du Kosten Zerbitzuak ez duela sarbidean hobekuntzarik egiteko asmorik. Datorren astean Sopelako Udalarekin bilduko da, arazoa berriz ere mahaigaineratzeko. Miguelek adierazi du konponbide bat ematen ez badiote negozioa beste udalerrri batera eraman beharko duela. Ane Osorori gaiaren berri emateko konpromisoa hartu du.

5. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa deitzea **maiatzaren 22rako**. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.



KIROL-AISIALDIKO MAHAIAREN ERABAKIAK (2024/04/17):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Kirol-portuko informazio-guneari buruzko kontaktua helaraztea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Sopelako Udalarekin La Salvaje hondartzarako sarbideari buruz hitz egiteko egindako bilerari buruzko informazioa helaraztea.	César González, Salbaje Surf Eskola	Apirilaren 25eko (ostirala) bileratik aurrera